

Egunero berdin

–Egun on, ama! (...) Aita! Kaixo! (...) Bai, oso ondo nago, bai. (...) Bai, normalean, goizeko zazpietan esnatzen naiz. Eta, hemen, kirola egin baino lehen gosaltzen dut, (...) Ba... batzuetan, zerealak esnearekin, eta, beste batzuetan, ogia olioarekin eta gatzarekin. Hemen ogia eta olio oso goxoak dira! (...) Bai, normalean goizetan egiten dut kirola, unibertsitatera joan baino lehen. Ba, korrika egiten dut parkean, lau kilometro normalean (...). Bai, korrika egin ondoren dutxatzen naiz, noski! Bai, hemen ere beti kantatzen dut dutxan nagoenean, je, je! (...) Unibertsitatera? Autobusez. (...) Bai, goizeko bederatzieta hartzen dut autobusa. Normalean, bazkaria etxean prestatzen dut eta tuperra eramaten dut.

–Bai, eta tuperra beti uzten dut mahai gainean.

–Ai, Xabi!

–Eta albornoza beti uzten dut sofa gainean. Hortzetako eskuila ez dut ontzian sartzen. Zapatilak lurrean uzten ditut. Ohea ez dut egiten. Eta gosaria ez dut jasotzen. Eta zartagina eta sardexka ez ditut jasotzen. Eta merienda mahai gainean uzten dut.

–Barkatu!

–Arropa zikina ez dut garbigailuan sartzen.

–Bai, agur. (...) Ai, barkatu, Xabi! Bihar ez! Bihar dena txukun-txukun! Benetan!

–Seguru?

–Seguru!

(...)

–Egun on, Xabi!

–Egun on, bai. Gaur, berriz horrela?

–Lasai, Xabi, gaur oso goiz esnatu naiz. Orain, gosalduta, eta, gero, dena txukun-txukun utziko dut.

–Ea egia den.

–Ai ama!

–Zer gertatzen da?

–Ez dira zortziak! Bederatziak dira! Autobusa!

–Eta hau guztia?

–Ai, barkatu, Xabi! Bihar ez! Bihar dena txukun-txukun! Benetan!

–Bihar dena txukun-txukun. Bihar dena txukun-txukun.